*500.000.-euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuetan, **kontratista enpresa berria baldin bada**, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da: lanak egiteko garaian edukiko duen makineria, materiala

*Dado que el valor estimado del contrato es inferior a 500.000 euros, cuando el contratista sea una **empresa de nueva creación**, entendiendo por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, su solvencia técnica se acreditará mediante una

eta ekipo teknikoa aipatzen duen aitorpena, eta bidezkoak diren egiaztagiriak erantsiko zaizkio.

declaración indicando la maquinaria, material y equipo técnico del que se dispondrá para la ejecución de los trabajos, a la que se adjuntará la documentación acreditativa pertinente.

*__Aldi baterako enpresa-elkartearen__ kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira, arau bidez zehaztutako moduan.

*En el caso de __unión temporal de empresas__ a los efectos de la determinación de la solvencia económica y financiera y técnica o profesional de la unión temporal, se acumularán las características acreditadas para cada uno de los integrantes de la misma, en la forma que reglamentariamente se determine.

Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta oinarrizko aurrekontuaren (BEZa gabe) %3ko zenbatekoa eskatuko zaio zigor moduan. Kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lizitatzaileari 7 egun balioduneko epea emango zaio dokumentazio bera aurkeztu dezan.

De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, y se procederá en este caso a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas.

SPKLren 139. artikuluaren arabera, proposamena aurkezteak berekin dakar baimena ematea Kontratazio Mahaiari eta Kontratazio Organoari, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko datuak edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetako datuak kontsultatzeko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139 de LCSP, la presentación de las proposiciones supone la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar datos recogidos en el Registro Oficial de licitadores y empresas clasificadas del Sector Público o en el Registro Oficial de Contratistas del País Vasco o en las listas oficiales de operadores económicos en un estado miembro de la Unión Europea.

19.- BEHIN BETIKO BERMEA

19.- GARANTÍA DEFINITIVA

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren % 5eko bermea eratu izana ziurtatu beharko du, balio erantsiaren gaineko zerga salbuetsita.

El licitador que hubiera presentado la mejor oferta deberá acreditar la constitución de la garantía de un 5% del precio final ofertado, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 108. artikuluan zehaztutako bitartekoak erabiliz eratu ahal izango da behin betiko

Esta garantía podrá prestarse en cualquiera de las formas establecidas en el artículo 108 de la LCSP.

bermea.

Bermea ez da itzuliko edo indargabetuko berme-epea amaitu arte eta kontratua behar bezala bete arte.

La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato.

Berme horrek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 110. artikuluan aipatutako kontzeptuei erantzungo die (lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak), eta kontratua amaitzen denetik 6 *hilabete* igaro ondoren harrera formala eta likidazioa ez badira egin, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, gehiago atzeratu gabe itzuli edo kitatu egingo da, 110. artikulu horretan aipatutako erantzukizunak bete ondoren.

Esta garantía responderá a los conceptos incluidos en el artículo 110 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, y transcurrido 6 meses desde la fecha de terminación del contrato, sin que la recepción formal y la liquidación hubiesen tenido lugar por causas no imputables al contratista, se procederá, sin más demora, a su devolución o cancelación una vez depuradas las responsabilidades a que se refiere el citado artículo 110.

20.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

20.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak hurrengo bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratua.

Recibida la documentación solicitada, el órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.

Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratugilearen profilean argitaratuko da 15 eguneko epean.

La adjudicación, que deberá ser motivada, se notificará a los candidatos o licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días.

21.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

21.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

Kontratua formalizazioaren bidez perfekzionatuko da.

El contrato se perfeccionará con su formalización.

Lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera 15 laneguneko epean, administrazio-agiri batean formalizatuko da kontratua, eta dokumentu hori titulu baliagarria izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko.

La formalización del contrato en documento administrativo se efectuará no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos; constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público.

Kontratistak kontratua eskritura publiko modura jasotzea eska dezake, baina, kasu horretan, gastu horiek bere gain hartuko ditu.

El contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu adierazitako epean, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren (BEZ gabe) ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor modura.

Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.

III.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA

III.- EJEUCUCIÓN DEL CONTRATO

22.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA

22.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Obra kontratuaren exekuzioa zuinketa aktaren sinadurarekin hasiko da; zuinketa akta kontratua sinatzen denetik gehienez hilabeteko epean sinatuko da.

La ejecución del contrato de obras comenzará con la firma del acta de comprobación del replanteo que deberá tener lugar en el plazo máximo de un mes desde la fecha de la formalización del contrato.

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, eta honek ez du izango kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, obran gerta litezkeen galeren, matxuren edo kalteengatik, SPKLko 239. artikuluan aurreikusten diren ezinbesteko kasuetan izan ezik.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista y éste no tendrá derecho a indemnizaciones por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras, salvo en los casos de fuerza mayor previstos en el artículo 239 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Nolanahi ere, lanak agiri honetan ezarritako klausulen eta agiriarekin lotutako zehaztapen teknikoen arabera egingo dira hertsiki, bai eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua) arabera ere. Bereziki, Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du kontratuaren gauzatzea, eta eskumen horiek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu.

En todo caso, las obras se realizarán con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el presente pliego, a las especificaciones técnicas unidas al mismo, así como a lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre. En especial, la ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Kontratistaren edo haren mendeko pertsonen egiteengatik edo ez egiteengatik kolokan jartzen denean kontratuaren bide zuzena, administrazioak

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración

beharrezkoak iruditzen zaizkion neurriak hartzea eska dezake, kontratua berriro bide onetik eramateko.

podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

23.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua egikaritzeko honako baldintza berezi hauek ezarri dira, bat etorriz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 202. artikuluan ezarritakoarekin:

23.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.

Se establecen las siguientes condiciones especiales de ejecución del contrato, de acuerdo con lo establecido en el artículo 202 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público:

23.1.- Gizartearekin loturiko baldintza; enpresa kontratistek bete beharreko gutxieneko lan baldintzak: Lan-arloan, gizarte-segurantzan eta lan-segurtasun eta lan-osasunean indarrean dauden eta aplikagarriak diren lege-xedapenak, araudiak eta xedapen konbentzionalak betetzera behartuta dago kontratista.

23.1.- Condición de tipo Social; condiciones laborales mínimas de las empresas contratistas: El adjudicatario asumirá como condición especial de ejecución la obligación de cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute, adjudikaziodun izanez gero, zein izango den kontratuaren exekuzioan arituko diren langileei aplikatuko dien hitzarmen kolektiboa

Las licitadoras deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarias.

Halaber, adjudikaziodunak kontratua exekutatuko duen langileen taldeari aplikatu beharko dio aplikagarria den eta indarrean dagoen azken enpresako hitzarmen kolektibo sektoriala, hain zuzen, kontratuaren prestazioa sartzen eta garatzen dena. Zehazki, adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den bitartean aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean jasotako soldata ordaindu beharko die, langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera. Ordaindu beharreko soldata ez da izango hitzarmenean aipatutakoa baino baxuagoa.

Asimismo la adjudicataria tendrá la obligación de aplicar a la plantilla que ejecutará el contrato las condiciones de trabajo establecidas en el último convenio colectivo de empresa sectorial de aplicación, vigente y en el que se encuadra y desarrolla la prestación contractual. En particular el adjudicatario deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo sectorial de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

Enpresak kontratua gauzatzeko izendatutako pertsona aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan dagokion kategoria

La empresa estará obligada a contratar a la persona asignada a la ejecución del contrato en la categoría profesional que

profesionalean kontratatu beharko du.

corresponda en el convenio colectivo de aplicación.

Horretarako, adjudikatu beharreko kontratuaren xedea betetzen ari den enpresak eta gaiak eragiten dien langileen enplegatzaile izaera duenak informazio hori helarazi beharko dio kontratazio-organoari, hark eskatuta.

A estos efectos, la empresa que viniese efectuando la prestación objeto del contrato a adjudicar y que tenga la condición de empleadora de las personas trabajadoras afectadas, estará obligada a proporcionar la referida información al órgano de contratación, a requerimiento de este.

Halaber, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 4. artikuluak ezartzen duenaren arabera, kontratuaren adjudikaziodunak administrazioari eman beharko dio, aldez aurretik hark eskatuta, arau horretan ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa, bai eta udal-arloan ezartzen diren arauetan ezarritakoa ere.

Asimismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno, el adjudicatario del contrato está obligado a suministrar a la Administración, previo requerimiento, toda la información necesaria para el cumplimiento de las obligaciones previstas en la citada norma, así como en aquellas normas que se dicten en el ámbito municipal.

23.2.- Kontratua gauzatzean zaindu beharreko hizkuntza-baldintzak

23.2.- Condiciones lingüísticas de ejecución

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Zumaiako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzan eta erabilera-planaren baitan Zumaiako udalak onartutako hizkuntza-irizpideetan.

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre la que está la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera y los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Zumaia en el marco del plan de uso del euskera.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin

El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su artículo 18 establece las determinaciones que los planes de normalización del uso del euskera deben recoger, entre ellas la siguiente: "18 d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes

harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen."

a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceras personas sean prestados a la ciudadanía en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente".

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Los requerimientos lingüísticos que se recogen en los siguientes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial del contrato a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede tener **consecuencias** idénticas al del resto de condiciones, es decir, la aplicación de penalidades o su resolución.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera. Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles. Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración.

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz; kanpo geratzen dira txosten eta memoria teknikoak. Ahozko harremanak ere euskaraz izango dira, ahal den neurrian.

Las relaciones tanto escritas habituales (contratos, facturas, etc.) de la empresa con la administración se ajustarán a la lengua de trabajo de ésta última, es decir, en euskera; quedan al margen los informes y memorias técnicas. Las relaciones verbales serán asimismo en euskera, siempre que sea posible.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena:**

Seguimiento del grado de cumplimiento de los requerimientos lingüísticos:

Kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak

La unidad administrativa promotora del contrato será responsable de hacer un seguimiento del cumplimiento de los requerimientos lingüísticos establecidos en él, de modo análogo al seguimiento del resto de condiciones y en plazos similares, dando cuenta de ello al Servicio de Euskera, quien dará su aprobación o propondrá medidas correctoras.

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

proposatuz.

23.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko baldintzak

Enpresa adjudikaziodunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan guztietan: enpleguaren eskuragarritasunean, langileen sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanegunaren iraupen eta antolamenduan, eta, oro har, kontratu honen gauzatzeari lotuta dauden langileei bizimodu pertsonala, familiarra eta lana uztartzen lagunduk dieten alderdi guztietan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, xedatzen duena betez.

23.3.- Condiciones en materia de igualdad de mujeres y hombres

La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Hizkuntza ez-sexista erabili beharko du enpresa adjudikaziodunak bere agiri guztietan, publizitatean, irudietan, edota kontratua gauzatzeko kariaz sortzen den material orotan; eta emakumea baztertzen duen irudi oro eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du; horrez gain, berdintasun-balioekin, presentzia orekatuarekin, aniztasunarekin, erantzukidetasunarekin eta genero- eta identitate-pluraltasunarekin lotutako irudia sustatuko du.

La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Sexu-jazarpena eta lanean sexu-arrazoiengatik inor jazartzea prebenitzeko neurriak hartzen direla bermatu behar du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak, kontratuak gauzatu ahal izateko hamar langile baino gehiago eskatzen dituenean.

La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo en aquellos contratos cuya ejecución requiera más de diez personas trabajadoras.

24.- ADJUDIKAZIODUNAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK

24.- OTRAS OBLIGACIONES DE LA PERSONA ADJUDICATARIA

24.1.- Segurtasun eta osasun programa

24.1.- Plan de seguridad y Salud

Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak (Eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak

En cumplimiento de lo establecido en el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen

finkatzen dituena) ezarritakoa betetzeko, kontratistak Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du, aipatutako Errege Dekretuan adierazitako edukiarekin, eta segurtasun- edo osasun-azterketan edo proiektuarekin batera aurkeztutako oinarrizko segurtasun- eta osasun-azterketan oinarrituta.

disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción el contratista deberá presentar el Plan de Seguridad y Salud con el contenido indicado en el citado Real Decreto y basado en el estudio de seguridad o salud o en el estudio básico de seguridad y salud que acompaña al proyecto.

Plan hori obra hasi aurretik onetsi beharko da.

Este plan deberá ser aprobado antes del inicio de la obra.

24.2.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezkeen oinarrizko betebeharrak.

24.2.- Obligaciones esenciales que pueden ser causa de resolución del contrato.

Kontratua gauzatzeari begira, oinarrizko betebeharrak izango dira hauek:

Tendrán la condición de obligaciones esenciales de ejecución del contrato, las siguientes:

a. Adjudikaziodunaren proposamena betetzea, balioespenaren xede izan diren alderdi guztietan, kontraturako ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

a. El cumplimiento de la propuesta del adjudicatario en todo aquello que haya sido objeto de valoración de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos para el contrato.

b. Azpikontratazioaren inguruan administrazio-baldintza berezien agiri honetan xedatutako betebeharrak.

b. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la subcontratación.

c. Kontratua gauzatzeko atxikitako baliabide pertsonal eta materialen inguruan administrazio-baldintza berezien agiri honetan xedatutako betebeharrak.

c. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la adscripción de medios personales y materiales a la ejecución del contrato.

d. Indarreko araudian eta segurtasun- eta osasun-planean segurtasunari eta osasunari buruz aurreikusten diren neurriak hertsiki betetzea.

d. El cumplimiento estricto de las medidas de seguridad y salud previstas en la normativa vigente y en el plan de seguridad y salud.

e. Baldintza-agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.

e. El incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución establecidas en los pliegos.

f. Langileen soldata eta PFEZ atxikipena ordaintzea, bai eta Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak unean-unean ordaintzea ere.

f. El pago de los salarios a los trabajadores y su retención de IRPF, así como el abono puntual de las cuotas correspondientes a la Seguridad Social.

Kontraturako oinarrizkoak diren betebehar horien betetze maila kontrolatzeko, adjudikaziodunak honako informazio hau aurkeztu behar dio kontratua izapidetu duen administrazio-unitateari hiru hilean behin:

— Soldaten ordainketa eta Gizarte Segurantzako kuotena egin dela erakusten duten agiriak, bai eta azpikontratistei egindakoenak ere.

— Lan-segurtasunaren eta osasunaren esparruan bere betebeharrak betetzeko garatzen dituen jarduerak zehatz-mehatz azaltzen dituen txostena, esparru horretan hiruhilekoan sortu diren gorabeherak ere jasotzen dituena.

Kontratuaren udal-arduradunak, justifikazio horri dagokionez, betebehar horien betetze mailari buruzko txostena egingo du. Kontratua kudeatzen duten langileei dagokionez, klausula honetan adierazitako betebeharren betetze mailari buruzko erreferentzia egingo da berariaz txosten horretan.

Aldeko txostena izan gabe, ez da bideratuko dagokion faktura, eta zehapen-espedientea edo kontratua suntsiarazteko espedientea abiaraziko da berehala, dagokionaren arabera.

24.3.- Lanen programa

Adjudikaziodunak eskaintzan Kontratazio organoak onartu beharko duen lanen egitaraua aurkeztuko du.

24.4.- Obren harrera eta berme-epea.

Obra bukatutakoan, kontratistak hura guztiz garbituko du, garbiketa gehigarririk gabe okupatu eta martxan jarri ahal izateko moduan.

Kontratistak, hamar egun baliodun lehenago, idatziz jakinaraziko dio obraren zuzendaritzari zein den amaitzeko edo

Para controlar el cumplimiento de estas obligaciones contractuales esenciales, el adjudicatario debe presentar trimestralmente ante la unidad administrativa que ha tramitado el contrato, la siguiente información:

— Los documentos justificativos de los pagos salariales y a la Seguridad Social, así como de los realizados a los subcontratistas.

— Informe especificativo de las actuaciones que realiza para el cumplimiento de sus obligaciones en materia de seguridad y salud laboral, indicando las incidencias que se hayan producido al respecto en cada trimestre.

El responsable municipal del contrato elaborará un informe sobre el cumplimiento de dicha justificación. En ese informe se hará también expresa referencia al cumplimiento de las obligaciones indicadas en esta cláusula en relación con el personal que gestiona el contrato.

Sin dicho informe favorable no se dará curso al pago de la factura correspondiente y se iniciará de inmediato un expediente de penalización o de resolución del contrato, según proceda.

24.3.- Programa de trabajo

La parte adjudicataria deberá presentar un programa de trabajos en la oferta para que sea aprobado por el órgano de contratación.

24.4.- Recepción y Plazo de garantía

Una vez terminada la obra el contratista realizará una limpieza total de la misma, de forma que pueda ocuparse y ponerse en funcionamiento sin ninguna limpieza suplementaria.

El contratista con una antelación de quince días hábiles comunicará por escrito a la dirección de la obra la fecha

kontratua gauzatzeko aurreikusitako data, harrera egin ahal izan dezan.

Obrak bukatzean, harrera administrazioak izendatutako eta haren ordezkari izango den fakultatibo batek egingo du, obren zuzendaritzaz arduratzen den fakultatiboak, Udaleko organo kontu-hartzaileak eta kontratistak, eta, hala nahi izanez gero, bere fakultatiboak lagunduta. Harreraren ondoriotzat, akta bat egingo da, eta bertaratutako guztiek sinatuko dute.

Harreraren egunetik hasi eta hiru hileko epean, kontratazio-organoak gauzatutako obren bukaerako agiria onetsi beharko du, eta kontratistari ordaindu beharko zaio kontratuaren likidazioaren kontura.

Obrak egoera onean badaude, eta aurreikusitako aginduen arabera, administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario teknikoak, haren ordezkari denak, jasotzat emango ditu, eta dagokion akta egingo da; orduan hasiko da berme-epea, eta urtebetekoa izango da. Lizitatzaileak, bere eskaintzan, berme-epea hobetu ahal izango du; beraz, kasu horretan, berme-epea adjudikaziodunak eskainitakoa izango da.

Berme-epean egindako lanetan akatsak edo okerrak daudela ziurtatuko balitz, kontratazio-organoak haiek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.

Bermearen epea bete baino 15 egun lehenago, zuzendaritza fakultatiboak –ofizioz edo kontratistak eskatuta– obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizun guztiez libre geratuko da, SPKLren 244. artikuluak ezarritakoa kenduta, akats ezkutuengatikoa; orduan, bermea itzuliko da, edo ezeztatu,

prevista para la terminación o ejecución del contrato, a efectos de que pueda realizar su recepción.

A la recepción de las obras a su terminación concurrirá un facultativo designado por la Administración representante de esta, el facultativo encargado de la dirección de las obras, el órgano interventor municipal y el contratista, asistido, si lo desea, de su facultativo. Del resultado de la recepción se levantará un Acta que suscribirán todos los asistentes.

Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato.

Si se encuentran las obras en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, el funcionario técnico designado por la Administración contratante y representante de esta, las dará por recibidas, levantándose la correspondiente acta y comenzando entonces el plazo de garantía que será de 1 año. La parte licitadora, en su oferta, podrá mejorar el plazo de garantía, por lo que, en tal caso el plazo de garantía será la que haya ofertado la adjudicataria.

Si durante el plazo de garantía se acreditase a la existencia de vicios o defectos en los trabajos efectuados el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar al contratista la subsanación de los mismos.

Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, el director facultativo de la obra, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras. Si este fuera favorable, el contratista quedará exonerado de toda responsabilidad, salvo lo dispuesto en el artículo 244 de la LCSP por vicios ocultos,

kontratua likidatu, eta, hala badagokio, ordaintzeko dauden betebeharrak ordaindu, hirurogei eguneko epean. Txostena ez balitz aldekoa eta ikusitako akatsak hutsegiteengatik balira eta ez eraikitakoaren erabileragatik, bermearen epearen barruan, zuzendaritza fakultatiboak kontratistari aginduko dio eraikitakoa aginduen arabera konpontzeko, eta epe bat emango dio horretarako. Bitarte horretan, obren mantenuaz arduratzen jarraituko du, inongo ordainik jaso gabe bermearen epea zabaltzearen truke.

procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y, en su caso, al pago de las obligaciones pendientes que deberá efectuarse en el plazo de sesenta días. En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias en la ejecución de la obra y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía, el director facultativo procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía.

24.5.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Kontratistak ordainduko ditu lizitazio- eta adjudikazio-iragarki(ar)en gastuak, formalizazioaren gastuak eta aplikagarri diren gainerako guztiak, indarreko xedapenei jarraikiz eta horietan ezartzen den moduan eta zenbatekoan.

24.5.- Gastos exigibles al contratista

Son de cuenta del Contratista los gastos del anuncio o anuncios de licitación y adjudicación, en su caso, de la formalización del contrato, así como cualesquiera otros que resulten de aplicación, según las disposiciones vigentes en la forma y cuantía que éstas señalen.

24.6.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeari loturiko betebeharrak.

Kontratistak kudeatu beharko ditu udal-ordenantzetan eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen arauetan ezarritako baimenak eta lizentziak, hornidura abiarazteko, egikaritzeko eta entregatzeko beharrezkoak direnak, salbu eta kontratazio-organoak kudeaketak bere kabuz egitea erabaki eta berariaz jakinarazten badu. Administrazioari eskatu beharko zaizkio horretarako behar diren agiriak.

Kontratista behartuta dago, haren kostura, obrara sartzeko seinale zehatzak eta lanak dauden guneko zirkulaziokoak instalatzera, baita obra gauzatzearen ondorioz arriskutsuak izan daitezkeen guneetakoak ere.

24.6.- Obligaciones relativas a la gestión de permisos, licencias y autorizaciones

El contratista estará obligado, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí mismo y así se lo haga saber de forma expresa, a gestionar los permisos, licencias y autorizaciones establecidas en las ordenanzas municipales y en las normas de cualquier otro organismo público o privado que sean necesarias para el inicio, ejecución y entrega del suministro, solicitando de la Administración los documentos que para ello sean necesarios.

El contratista queda obligado a instalar, a su consta, las señalizaciones precisas para indicar el acceso a la obra, las de circulación en la zona que ocupan los trabajos, así como las de los puntos de posible peligro derivado de la ejecución

de las obras.

25. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KALTE ETA GALERENGATIK

Kontratista, obrak exekutatu bitartean, bere ardurapeko langileek egindako ekintzen, hutsegiteen edo arduragabekeriaren ondorioz nahiz obren antolaketa, babes edo seinaleztapen desegoki baten ondorioz edozein pertsonari, jabetzari edo zerbitzuri eragindako kalte eta galera guztien erantzule izango da. Ondorengo arrisku hauek estaliko dituen eraikuntzako arrisku orotarako poliza baten kopia eta poliza hori kontratatzeko prima ordaindu duelako ordainagiria aurkeztu beharko du:

Adjudikazioaren xede diren obrak burutzeko egin behar diren lanetan hirugarren pertsonengan sor daitezkeen eta langileek, mendeko iraunkor nahiz aldi baterakoek, makinek eta ekipoek sor ditzaketen kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), ondorengo eskala honen arabera:

Kontratua zenbatekoa	**Bermearen epea**
150.253,02€ arte	Kontratu aurrekontuaren bikoitza
150.253,02 - 601.012,10 €	601.012,10 €
601.012,10 - 3.005.060,52€	1.202.024,20 €
3.005.060,52 - 6.010.121,04 €	1.803.036,31 €

25. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR DAÑOS Y PERJUICIOS

La contratista será responsable, durante la ejecución de las obras, de todos los daños y perjuicios que se pudieran ocasionar a cualquier persona, propiedad o servicio, público o privado, como consecuencia de los actos, omisiones o negligencias del personal a su cargo, o de una deficiente organización, protección o señalización de las obras. Por lo tanto deberá aportar copia de la póliza y justificante del pago de la prima de contratación de una póliza de todo riesgo de construcción que cubra los siguientes riesgos:

La responsabilidad civil (general, patronal y cruzada) en que pueda incurrir por los daños causados a terceras personas y derivada de actos de su personal, empleados y dependientes permanentes u ocasionales, su maquinaria y equipo, así como consecución de trabajos realizados durante la ejecución de las obras objeto de la adjudicación, con arreglo a la siguiente escala:

Importe del contrato	**Límite de garantía**
Hasta 150.253,02€	Doble presupuesto contrata
150.253,02-601.012,10 €	601.012,10 €
601.012,10 - 3.005.060,52€	1.202.024,20 €
3.005.060,52 - 6.010.121,04 €	1.803.036,31 €

26. AZPIKONTRATAZIOA

Baimenduta dago kontratuaren xede diren prestazioen azpikontratazio partziala egitea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 215. artikuluan xedatutako eran eta baldintzetan.

Oinarrizko eskakizun batzuk bete beharko dira azpikontratazio horretarako. Hauek dira oinarrizko baldintza horiek:

a) Egin asmo duen azpikontratazio bakoitzari dagokionez, adjudikaziodunak aurrez udalari idatziz horren berri eman beharko dio, honako datu hauek

26. SUBCONTRATACIÓN

Se autoriza la subcontratación parcial de las prestaciones accesorias objeto del contrato en los términos y con las condiciones que establece el artículo 215 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La subcontratación deberá realizarse cumpliendo los requisitos básicos siguientes:

a) Comunicación previa y por escrito al Ayuntamiento del adjudicatario de los datos siguientes en relación con cada subcontrato que pretenda realizar:

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

aurkeztuz:

-Azpikontratistaren identifikazioa, haren nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko datuak emanez.

-Azpikontratistak egingo dituen kontratuko atalen identifikazioa.

-Azpikontratatuko dituen prestazioen zenbatekoa.

Datu hauek azaldu beharko dituzte baita ere aurkezten duten eskaintzan.

b) Ezin izango dira azpikontratatu administrazioarekin kontratuak egiteko baztertuta dauden pertsonekin edo enpresekin, ez eta azpikontratazioaren barneko prestazio zehatz horietarako gaitasunik, kaudimenik eta gaikuntzarik ez dutenekin ere.

c) Azpikontratatzen duen kontratistak, azpikontratistaren lanak hasi aurretik, lan horiek egingo dituzten langileen afiliazioa eta Gizarte Segurantzako alta egiaztatu beharko ditu, apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuak, ezkutuko enplegua erregularizatu eta kontrolatzeko eta etxebizitzen zaharberritzea sustatzeko neurriei buruzkoak, xedatzen duena betez.

d) Azpikontratazio horren barneko langileen ordezkariei informazioa eman beharko dio kontratistak, lan-legediarekin bat etorrita.

